



JARRAIBIDEAK, ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan gizarte-egoera kaltetuekin lotuta eskola-atzerapen larriak edo eskola-girora egokitzekeo zailtasun handiak dituzten ikasleen arretarako Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuei buruz Hezkuntza sailburuordeak emandakoak 2007-2008 ikasturterako.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 1998ko uztailaren 30an emandako Aginduan (abuztuaren 31ko EHAA), Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuak arautzen dira. Proiektu horietan ikastetxeek gizarte edo kultur egoera kaltetuetan dauden ikasleekin eta eskolara moldatzeko zailtasunak erakusten dituzten ikasleekin batera jarraitu beharreko hezkuntza-jarduna zehazten dute

1. 1. Jarraibide hauen helburua

Jarraibide hauen helburua da 2007-2008 ikasturtean Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektua martxan jartzeko helburua duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei laguntzea.

2. . Proiektu horien helburuak

Deialdi honen helburu diren Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuen bidez honako hau lortu nahi da:

- a) Desabantaila sozialean dauden ikasleei hezkuntza-mailako erantzun egokia eta kalitatezkoa eskaintzea, hezkuntza-berdintasuna bermatzeko asmoarekin eskola-ingurune arruntean derrigorrezko irakaskuntzaren helburuak lortzen lagun diezaien.
- b) Eskolara egokitu ezin diren ikasleei berregokitzekeo prozesuak eskaintzea, hezkuntza-sisteman euren premiei erantzun egokia aurkitzekeo aukera izan dezaten.

3. Jardutekeo printzipioak

Berariaz Esku Hartzeko Proiektuen definizioan, proposatutako helburuak lortzearren, jardutekeo printzipio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Ikastetxeak bere premien arabera definituko dituen proiektuetan egituratuko dira jarduketak edo jarduketak. Bertan, ikasle horien zikloko irakasleak inplikaturako dira, eta irakasle horien antolakuntzan eta funtzionamenduan aldaketak gerta daitezke.

- b) Prebentzio-estrategiek erreaktiboek baino garrantzia handiagoa dute; ahal dela, erantzun integratzaileei emango zaie lehentasuna ikasgelan, eta horretarako behar diren antolaketa-, curriculum- eta baliabide-aldaketak bultzatuko dira. Ikasgelan erantzun normalizaturik eman ezin den kasuan bakarrik egingo dira beste era bateko multzokatze bereziak, epe jakin batzuetarako.
- c) Ikasleen premiak, interesak, ezaugarriak, esperientziak eta kultura kontuan hartzen dituen hezkuntza-mailako erantzuna eskaintzen da, eta itxaropen-maila altua mantenduz, esperientzia arrakastatsuak garatzeko aukera ematen da. Horretarako, beste hainbat neurriren artean, curriculuma murriztu eta sinplifikatu beharrean hura aberasten ahaleginduko da.

4. Proiektu horien hartzaileak

Bigarren Hezkuntzako Lehen zikloaren 1. eta 2. mailarako abenduaren 31 baino lehenago matrikulatutako 15 urtetik beherako ikasleak dira Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuen hartzaileak, baldin eta egoera hauetan badaude:

- a) eskola-atzerapen handia badute, batez ere arlo instrumentaletan eta gizarte-egoera kaltetuetan badaude.
- b) Eskolara egokitzeko arazoak dituzten ikasleak badira; izan ere, normalean ikasketetan atzeratuta baitabilta.

5. Proiektuen ezaugarriak

Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektutzat (baimena behar dute) joko dira indarrean den arautegian aldaketak eragiten dituzten proiektuak edo baliabide berezi hauek behar dituztenak :

- a) Kurtsoaren egitura aldatzea: arloka antolatu beharrean arloei esleitutako ordutegia aldatzea...
- b) Curriculumuma aldatzea: derrigorrezko zenbait eduki ez sartzea, eta helburu orokorrak mantentzea oinarrizko trebetasunak eskuratzea bermatzeko.
- c) Antolaketa-aldaketak, pertsona- edo material-baliabide bereziak eskatzen dituztenak: bi irakaslek jardutea gelan arlo batzuetan; ohiko taldetik kanpo arlo bat edo gehiago ikastea; arlo tronkaletako edukiak tailerren bidez lantzea; banakako tutore-jarduna garatzea eten gabe...

6. Betebeharrak

- a) Ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari egoera jakinarazi zaie eta haiei entzun zaie.
- b) Ikastetxeko behin betiko irakasleek hartuko dute euren gain proiektuaren erantzukizuna. Irakasle horiek lehendabizi proiektuan jasotako neurriak gauzatu beharko dituzte.



- c) Ikasgela arruntetik kanpo esku-hartze neurriak hartu behar izanez gero, ikasleak ez dira denboraren %50 baino gehiago erreferentzia-taldetik kanpo egongo, eta salbuespen gisa ez ordutegiaren 2/3 baino gehiago. Gehienez ere, ikastetxearen 3 irakasle egonkor arduratuko dira neurri horiek gauzatu daitezen.
- d) Ordezkaritzako Organo Gorenak onartu beharko du proiektua.

7. Proiektuen eskabideen aurkezpena

7.1. Ikastetxe Publikoen kasuan, 2006-2007 ikasturtean onartu eta urte biko indarraldia duten Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuak berriztatzea 2007-2008 ikasturtean

2006-2007 ikasturtean onartutako proiektu berriak urte biko indarraldia zuten. Beraz, berez berriztatzen dira 2007-2008 ikasturterako. Dena den, 2006-2007 ikasturtean proiekturako onartu ziren baldintza hauek aldatu ahal izan dira proiektuaren helburu den ikasle-taldea eta proiektuan inplikaturako irakasleak edo beste alderdi batzuk. Hortaz, 2006-2007 ikasturterako Berariaz Esku Hartzeko proiektu berri bat onartuta duten ikastetxe publiko guztiek, 2007-2008 ikasturtean berritu nahi badute, berriztatze eskabide bat (I.-A eranskineko ereduaren arabera beteta) bidali behar badiote Hezkuntzaren-lurralde ordezkariari dagokion Lurralde Ordezkaritzara. Eskabidearekin batera IV. eranskina, behar bezala beteta, bidaliko da.

Eskabidea aurkezteko epea 2007ko maiatzaren 25ean –egun hori barne- amaituko da.

7.2.- Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektu berriak 2007-2008 ikasturterako (Publiko eta Itunpeko ikastetxeentzat)

Ikastetxearen Zuzendaritzak proiektua baimentzeko eskabidea zuzenduko dio Hezkuntzaren lurralde-ordezkariari, I-B eranskinaren arabera beteta, eta ikastetxea dagoen lurraldeko Hezkuntzaren lurralde-ordezkaritzan aurkeztuko da.

III, IV, V, eta VI. eranskineko agiriak bete eta erantsiko dira.

Eskabideak aurkezteko epea 2007ko maiatzaren 25ean, egun hori barne, amaituko da.

Proiektu berri horiek onartzen badira, urte biko indarraldia izango dute.

8. Proiektuak onartzeko prozesua

Eskabideari eransteko, Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-buruak txosten hauek bilduko ditu:

- a) Tokian tokiko Berritzeguneak emango duen txostena; txosten horretan III. ERANSKINEKO irizpideei jarraiki proiektua baloratuko da eta aintzat hartuko da ikasleen beharrek deialdian aurreikusitakoa betetzen duten, proposamena ikasleen beharretarako eta etapako helburuetarako egokia den eta neurriak integratzaile edo banatzaileak diren.
- b) Hezkuntza Ikuskaritzaren Txostena, proiektua deialdi honetan ezarritako baldintzetara eta ikastetxearen ezaugarrietara egokitzen ote den azaltzen duena; eta, behar izanez gero, hobetzeko proposamenak.

Pedagogia Berrikuntzarako lurralde-buruak eta ikastetxeetako lurralde-buruak, aurreko txostenak kontuan hartuta eta II. ERANSKINEKO baremoa ezarrita, txosten bat egingo dute. Bertan, datu hauek adieraziko dira:

- Proiektuen zerrenda, lehentasunaren arabera antolatuta.
- Proiektu bakoitzean egin behar diren aldaketak.
- Proiektu bakoitzean eskatutako baliabideak.

Batzorde batek proiektuak baloratuko ditu. Batzordeak kide hauek izango ditu: Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo berak izendatutako ordezkaria (batzorde-buru), ikuskatzaile nagusiak izendatutako hezkuntza-ikuskatzaileak, Pedagogia Berrikuntzarako lurralde-buruak, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat eta Ikastetxeetako Zuzendaritzako teknikari bat.. Batzordeak lurralde-buruen txostenak kontuan hartu, eta proposamena egingo du; bertan, beharrezkoa balitz, egokiak iruditzen zaizkion aldaketak adieraziko ditu.

Halaber, ikastetxeko giza baliabideak aintzat hartuta batzordeak ikastetxearen plantila gehitzea proposa dezake, beharrezkoa baldin bada. Edonola ere, gehitze hori erabiliko da neurri bereziak garatuko dituen eta behin-betikoak izan edo egonkortasuna duten irakasleen ordutegia betetzeko.

Batzordeak proposamena Hezkuntza sailburuordeari igorriko dio.

Aurkeztutako Proiektuak onartu diren 2007ko ekainaren 30a baino lehenago jakinaraziko die ikastetxeei Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak. Jakinarazpen horretan, proiektuari egokitu zaizkion errekurtsioak (izanez gero), eta egin behar dituzten aldaketak aipatuko dira.

9. Proiektua martxan jartzea

Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuaren onarpena jasotzen duten ikastetxeek ikasturtearen hasieran igorriko diote Hezkuntzako Ikuskaritzara proiektuan parte hartuko duten ikasleen zerrenda (VII. ERANSKINEKO ereduari jarraituta). Bertan, arloko curriculum-egokitzapenik ba ote dagoen adieraziko da.

Azaroaren 15a baino lehenago ikasle bakoitzak Banakako Lanerako Plana izango du, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura izango dena. Plan hori erreferentzia gisa hartuta, ikasle bakoitzaren egoera pertsonaletara egokituko da, eta bertan, gutxienez, datu hauek jaso beharko dira: hezkuntza-mailan ikasleak dituen beharren deskribapena; curriculum-egituratuko den arlo edo esparru bakoitzean curriculum-proposamen zehatza; ebaluazio-irizpideak; talde arruntean, talde zehatzean (balego), banakako jarduera tutorizatu eta abarretan eman behar den denboraren antolamendua; eta neurri zehatzak amaitutzat emateko irizpideak.

10. Ikaslearen egoera akademikoa

Bigarren Hezkuntzako helburuak jorratzen direnez, proiektuan parte hartzea hezkuntza-laguntzat jasoko da Berariaz Esku Hartzeko Proiektuaren hartzailerak diren ikasleen dokumentazio akademikoan.

Salbuespen gisa, Banakako Lanerako Planak arloren bateko curriculumaren aldaketa adierazgarria badakar, Plan hori 1998ko uztailaren 30eko Aginduan -curriculum-egokitzapenei buruzkoan- aipatutako Arloko Curriculum Egokitzapena izango da, eta plana Proiektuaren barruan onartzen dela ulertuko da.

Neurrien artean, esparruen arabera antolakuntza ikusi bada, ebaluazioa esparruka egingo da. Ebaluazio horretako emaitzak ebaluazio-akta gehigarri batean idatziko dira, eskolatze-liburuan oharretarako gordetako tokian eta ikaslearen ikasketa-espeditentean.

11. Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa

Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuak, behin onetsirik izanez gero, ikastetxearen urteko planean sartuko dira.

Kurtso bakoitzaren amaieran ikaslearen tutoreak, ikastetxeko Orientatzailearen laguntzaz, Banakako Planaren balorazioa egingo du. Plan horretan, hezkuntza-prozesua jarraitzeko gomendioak adieraziko dira.

Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiekturik egiten duten ikastetxeek hobetzeko proposamenak eta Proiektu horien balorazioa adieraziko dituzte urteko Memorian, VIII. ERANSKINAREN gidoiaren arabera.



Hezkuntzako Ikuskaritzak Proiektuaren garapenaren kanpoko ebaluazioa egingo du kurtsuan zehar. Berritzeguneak, berriz, proiektuaren segimendua egingo du eta, ikastetxeak eskatuz gero, aholkularitza-lanak beteko ditu.

Ikuskaritza Teknikoak deitutako ebaluazio bateratuko saioa egingo da Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektua onarturik duten ikastetxe guztietan. Bertan, ikastetxea hobetzeko proposamenak, tokian tokiko Berritzegunearen txostena eta Ikuskaritzaren ebaluazio-txostena aztertuko dituzte. Agindu honetan jasotako proiektuetakoren bat garatuko duten bere inguruko ikastetxe bakoitzaren Ebaluazio-txostena egingo du Ikuskaritza Teknikoak, eta Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Buruzagitzara igorriko du.

Jarraipen- eta ebaluazio-prozesu honetan sortuko diren txostenak kontuan hartuko dira Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuak berritzeko, Proiektu horien indarraldia amaitzean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 10a.

Pedro Otxoa Bernales
Hezkuntza sailburuordea



I-A ERANSKINA

2006-2007 IKASTURTEAN BERRITZAT ONARTUTAKO BERARIAZ ESKU HARTZEKO PROIEKTUA 2007-2008 IKASTURTEAN BERRIZTATZEKO ESKAERA (IKASTETXE PUBLIKOAK)

Ikastetxea..... Kodea

--	--	--	--	--	--

Udalerria..... Lurraldea.....

Goian aipatutako ikastetxeko zuzendariak 2007-2008 ikasturterako erantsitako Hezkuntza Berariaz Esku Hartzeko Proiektuaren berriztapen-eskaera egiten du. Bertan, hau eskatzen du (eskatzen direnak bakarrik adierazi):

	Zikloaren egitura aldatzeko baimena
	Curriculuma aldatzeko baimena
	Ohizkanpoko giza baliabideak behar dituzten antolakuntza-mailako aldaketak

.....(-e)n, 2007ko-aren(-e)an

--

SARRERA
Data
Zigilua

.....**KO HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARI JAUNA**

**I-B ERANSKINA****PROIEKTU BERRIAK ESKATZEA (PUBLIKO ETA ITUNPEKO IKASTETXEAK)**

Ikastetxea..... Kodea

--	--	--	--	--	--

Udalerria..... Lurraldea

Goian aipatutako ikastetxearen zuzendariak eskatzen du 2007-2008 ikasturterako onartzea honekin batera doan Hezkuntza Berriaz Esku Hartzeko Proiektua. Bertan hau eskatzen du (behar direnak baino ez adierazi):

	Zikloaren egitura aldatzeko baimena
	Curriculum aldatzeko baimena
	Ohizkanpoko giza baliabideak behar dituzten antolakuntza-mailako aldaketak

.....(-e)n, 2007ko-aren(-e)an

--

SARRERA

Data

Zigilua

.....**KO HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARI JAUNA**



II. ERANSKINA

PROIEKTU BERRIAK BALORATZEKO BAREMOA

1. **ESKOLA-PORROTAREN MAILA: DBHko 1. eta 2. mailan promozionatu ez duten ikasleen portzentajea (2005/2006 ikasturteko datu ofizialak): 5 puntu, gehienez.**

< %5	0,5 puntu
%5 - %10	1 puntu
%10 - %15	1,5 puntu
%15 - %20	2 puntu
%20 - %25	2,5 puntu
%25 - %30	3 puntu
%30 - %35	3,5 puntu
%35 - %40	4 puntu
%40 - %45	4,5 puntu
> %45	5 puntu

2. **GIZARTE-EGOERA TXARREAN DAUDEN IKASLEAK ESKOLARATZEA: 5 puntu, gehienez.**

Bekadunen portzentajea (2006/2007 ikasturteko datu ofizialak)

< %10	0 puntu
%10 < > %20	1 puntu
%20 < > %30	2 puntu
%30 < > %40	3 puntu
%40 < > %50	4 puntu
> %50	5 puntu

3. **DBHko 1. ETA 2. IKASTURTEAN MATRIKULATUTATKO IKASLERIA (2006/2007 ikasturteko datu ofizialak): 1 puntu, gehienez.**

Ratioa > 20 ikasle baino gehiago: 1 puntu

4. **PROIEKTUAREN BALORAZIOA: 3 puntu, gehienez.**

Zonaldeko Berritzegunearen balorazioaren arabera.

OHARRA: Baremo honi dagozkion datuak Sailaren datuak dira. Beraz, ikastetxeak ez ditu eskabidean erantsi behar

III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

1. Proiektuaren justifikazioa

Proiektua justifikatzen duten arazoak, eta ikastetxeak Proiektu horri aurre egiteko gaitasuna.

2. Proiektuaren barnean sartutako eskaerak

- Zikloko curriculumaren edo egituraren nahitaezko alderdietan aldaketak egiteko baimena.
- Proposatutako zikloaren antolakuntzan aldaketak egiteko behar diren ohizkanpoko baliabide pertsonalak edo materialak.

3. Hezkuntzan esku hartzeko proposamena

- Curriculum-proposamena, aldatu nahi dituzten, edo ikasgela- edo ziklo-mailan sakondu nahi dituzten curriculumeko elementuak barnean hartuko dituen, eta ikasle horiei zuzendutako berariazko proposamen orokorra.
- Alderdi metodologiko garrantzitsuak.
- Antolatze eta funtzionatzeko neurriak.
- Tutoreek eta Ikastetxeko Orientatzaileak garatu behar dituzten tutoretza-mailako edota banakako hezkuntza-orientabideko esku hartzeak.
- Ikastetxearen inplikazioa prozesu osoan.

4. Proiektuak aprobetxatuko dituzten baliabideak

- Ikastetxeko irakasleen inplikazioa
- Proiektuaren neurri zehatzetako irakasle arduradunak.
- Proiektuaren eskura dauden ikastetxeko baliabide didaktiko eta materialak.
- Gizarte Zerbitzuekin eta Zerbitzu Soziokomunitarioekin batera lan egiteko plana, adin txikikoen eta euren senideen gain eragina duten ekintzak koordinatzeko asmoarekin
- Aholkularitza-plana kanpoko agenteekin.

5. Proiektuaren segimendua eta barne-ebaluazioa

- Proiektua ebaluatze irizpideak.
- Uneak, irizpideak eta tresnak.

Oharra.- Atalak adierazgarriak dira, eta bakoitzak, zein bere beharren arabera, nahi duen zabalera egokitu ahal izango ditu. Halaber, Proiektuaren alderdi guztiak bildu ez direla ikusiz gero, gehitu nahi den arloa, eranskin gisa sartuko da.



IV. ERANSKINA

Ikastetxea.....

Udalerrria Lurraldea

PROIEKTUAN PARTE HARTU BEHAR DUTEN IKASLEAK.

ABIZENAK ETA IZENA	Maila ¹	Jaiotze urtea	Erreferentzia-maila ²	Zein eskola-arlotan du atzerapen larria ³
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				
11.				
12.				
13.				
14.				
15.				

1) 2007-2008 ikasturtean zein mailatan izango diren.

2) Helburuak gainditurik izanik egin duen azken zikloa.

3) Atzerapen larria arlo guztietan edo arlo zehatz batean ematen ote den adierazi.

PROIEKTUAZ ARDURATZEN DIREN IRAKASLEAK.

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	ADMINIST. EGOERA	ESPEZIALITATE A	ESKAINITAKO DENBORA	ONESPENA

¹ 2007-2008 ikasturtean zein mailatan izango diren.

² Helburuak gainditurik izanik egin duen azken zikloa.

³ Atzerapen larria arlo guztietan edo arlo zehatz batean ematen ote den adierazi.



V. ERANSKINA

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN AKTA

Datan adierazitako egunean bilduta, horren funtzionamendurako ezarritako legezko baldintzak beteta, eta 2007ko maiatzaren 10eko Hezkuntza sailburuordearen jarraibideen deialdiaren baldintzen arabera, BHIren Ordezkaritza Organo Gorenak ikastetxeko Zuzendaritzak proposatutako Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektua ontzat eman zuen, eta aurkeztutako Proiektuan zenbatutako jarduerak garatzeko beharrezko neurriak hartzeko eta, onartuz gero, urteko Planaren barruan sartzeko konpromisoak eskuratu ditu.

.....(e)n, 2007koren(e)an

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN LEHENDAKARIA

**VI. ERANSKINA****GURASO EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA**

..... BHIaren Zuzendariak zinpean adierazi du: Institutu honek aurkeztutako Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuan parte hartuko duten ikasleen guraso eta legezko ordezkari, ikasle horiek proiektuan sartzeko izan dituzten arrazoiak, lortu nahi dituzten helburuak eta burutuko diren ekintzen berri eman zaiela.

Guztiek eman dute baimena.

Guztiek eman dute baimena, ondoko ikasle hauen gurasoek izan ezik. Guraso horien iritzia erantsi dira.

.....(e)n, 2007koren(e)an

VII. ERANSKINA

PROIEKTUAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASLEEN ZERRENDA

(Eranskin hau ikasturtearen hasieran bete eta Hezkuntza Ikuskaritzara igorri behar da)

Ikastetxea

Udalerrria **Lurraldea**

ABIZENAK ETA IZENA	Jaiotze data	Maila¹	Aldaketa nabarmenak hartuko dituzten arloak
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			

¹ 2007-2008 ikasturtean zein mailatan matrikulatu diren.

VIII. ERANSKINA

URTEKO ETA AMAIERAKO MEMORIA EGITEKO GIDOIA

IKASTETXEA:.....

Udalerrria **Lurraldea**.....

- 1.- Proiektuko xedeen lorpen-maila.
- 2.- Egindako jardueren laburpen-taula.
- 3.- Ondorioak: Proiektuaren lorpenak eta hobetzeko proposamenak.